

My House is Your House / Nire etxea zurea ere bada / Mi casa es tu casa

Chiharu Shiota

Chiharu Shiota (Osaka, Japonia, 1972) 1992an hasi zen margolari ibilbidea urratzen, Kyotoko Seika Unibertsitatean, hain zuzen. Hasi eta laster konturatu zen pintura tradizionalaren bidez ezingo zituela barnean zeuzkan bulkada artistiko sakonenak adierazi.

Canberrako truke-programa batean (1993-1994) sortu zuen *Becoming Painting* izeneko lehen performancea. Horrekin, pintura konbentzionalarekiko aldaketa eragin zuen, Shiotak sortze-prozesua existentziaren hedapen pertsonal zuzena bihurtu zuen heinean.

1996an Japonian ikasketak amaitu ostean, Alemaniara joan zen Shiota, han jomuga artistikoak zabal zekizkion. Braunschweig-eko Arte Unibertsitatean ikasi zuen aurrena (1997-1999), Berlingo Arte Akademian gero (1999-2003). 2015erako, arte garaikideko figura nagusietako bat bihurtua zen Shiota, historia ontzerraino, Japoniatik kanpo bizita Veneziako Biurtekoan herrialdea ordezkatu zuen lehen emakume artista bihurtu baitzen.

Chiharu Shiotak gai unibertsalak arakatzen ditu artelanetan, besteak beste, etxea, memoria, migrazioa, bizitza eta heriotza, horretarako eguneroko objektuak erabiliz, izan arropa, izan altzariak, izan bestelako objektu pertsonalak. Objektuok hari-sare korapilatsuetan bilduta, eskala handiko instalazioak eratzen ditu, ikusleei gogoeta eraginez, bateko denbora iragateaz, besteko existentziaren hauskortasunaz. Hizkuntza mintzatuaz, naziotasunaz edo erlijioaz gaindi hedatzen ditu artelanak, kontakizun unibertsala eskaintzeko, oroimena galtzeaz, elkarlotzeaz eta iraunarazteaz.

My House is Your House erakusketan, Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoren arkitektura eta historia bereziari erantzuteko aukera izan du Shiotak. Jatorriz ardo-biltegi izateko asmatu bazen ere, birdiseinatzean, espazio arkitektonikoak txertatu ziren lehengo egituraren barruan, harrigarriak dira ondoz ondo elkarren gainean sortutako etxeak, elkar besarkatzen dutela dirudi, iragana eta oraina elkarritzeta dinamikoan korapilatuz. Eraldatze hori Shiotaren eboluzio artistikoaren erakusle da, lehendik dauden egituretan forma berriak ernatuta, berrasmatzeko eta konektatzeko gaiak agerian.

Chiharu Shiotaren ibilbidea alderik alde bilduta dago erakusketan, 90eko hamarkadan egin zituen lehen lanekin, orobat Azkuna Zentroan zein Bilbon inspiratutako *site-specific* instalazio berriekin.

Shiotaren eskala handiko artelanak, kolore gorri nabarmenekoak sarri, elkarritzetan lotu dira eraikinen adreiluzko fatxadarekin. Japoniako kulturen gorria bizitzaren, energiaren eta eguzkiaren sinboloa izanik, hemen gogora dakartza odol-lerroa, bizi-indarra eta izakien arteko elkarlotzea. Atarian, lore-begi erako gorputza oroitarazten dute soineko gorri monumentalek, nia ezkutatzen hainbat agertzen duten babes-azal.

Erakusketa Aretoko gunean, Shiotak azken hiru hamarkadetan ondu dituen lanen panoramikarekin batera, haren instalazioek hari-patroi korapilatsuak ehundu dituzte, loturak eratuz nola ehungintza tradizionalarekin, hala ekialdeko kaligrafiarekin. Hasiera eta amaiera argirik gabeko marrazki konplexu hedatua eratzen dute hariek, bideen, istorioen eta esperientzien sinbolo bilakatuta. Esekitako objektuek, hala nola jantziek eta leihoek, ez dauden presentziak irudikatzen dituzte, gogora ekarritik bizitzaren hauskortasuna eta memoriaren boterea. Sarean egituraturako artelan erakargarriak daukan narrazio-ahalmena esploratzeko aukera du ikusleak, ireki bezain limurtzaile, lotura berriak eratzen bultzatuz. Instalazioak eurak ere iragankorrak dira, erakusketa bakoitza amaitzean suntsitzekoak. Guneko artelanen memoria eta erregistroa soilik geratzen dira.

Nire etxea zurea ere bada erakusketa gonbidapena da, bisitariak Shiotaren murgiltze-mundua esplora dezan, zeinetan istorio pertsonalak eta kolektiboak gurutzatzen diren. Meditazio ahaltsua da erakusketa hau, gizakien arteko loturaz, memoria iraunarazteaz eta existentziaren izaera iragankorraz.

Tereza de Arruda

Komisarioa